

■ País Vasco

Álava

Guipúzcoa

Vizcaya

Euskera

Euskera

Euskal Herriko 36 sagardotegik parte hartuko dute II. Sagardo Txapelketa Herrikoian



SAGARDOETXEA

Actualizado 2016/09/14 14:23:28 CET

DONOSTIA, 14 (EUROPA PRESS)

Euskal Herriko **36 sagardotegitako sagardoek** hartuko dute parte **Euskal Herriko II. Sagardo Txapelketa Herrikoian**. Finalurreko bakoitzean 36 sagardo horietatik 12 sagardo dastatuko dira, zozketaz erabakita, eta finalurrekoetan puntuazio altuena

lortzen duten 12 sagardoak pasako dira finalera, Andoainen, irailaren 24an.

Gipuzkoako Sagardogileen Elkartek jakinarazi duenez, parte hartzen 36 sagardotegietako sagardoak afaltzera inguratzen diren guztien artean dastatu eta puntuatuko dira. Horrela, edonork parte har dezake txapelketan, sagardoa gustatzea baita baldintza bakarra.

"Orain arte, ohituta egon gara herri askotan egiten diren Sagardo Egun eta txapelketekin, baina txapelketa herrikoia desberdina da: afaltzera eseri eta ateratzen dituzten sagardo desberdinak dastatu eta nork bere gustu eta iritzia araberaren nahi duen puntuazioa ematen dio, batetik hamarrera. Beraz, epaile izatea afaltzera eseri eta sagardoak dastatzea da, lagunarteko giroan. Ez da txapelketa ofiziala, baina aukera ematen du herritar askoren iritzia jakiteko eta horiosoa interesgarria da sagardogileentzat", azaldu du.

Finalurrekoetan sarrerak pixkanaka bukatzen ari dira "eta batek baino gehiagok errepikatu egin dute lehen esperientzia gustatuta". Orain, final handia prestatzen ari da Gipuzkoako Sagardogileen Elkartea, Andoaingo Udalaren eta Ontza Elkartearen laguntzarekin.

Txapelketa afaria irailaren 24an izango da, 20:00etan hasita, Andoaingo Zumea plazan, eta menua euskal produktuetan oinarrituko da, Gipuzkoako Sagardogileen Elkartek, Basatxerrik eta Lurlan Elkarrek duten elkarlanerako proiektua oinarri hartuta. Txartelak salgai daude 30 euroan Andoaingo Ontza Elkartean, Ondarreta tabernan eta Txuri Beltz tabernan.

BIGARREN EDIZIOA

Aurten bigarren urtea du Euskal Herriko Sagardo Txapelketa Herrikoiak, Gipuzkoako Sagardogileen Elkartek lehengo ohitura bati heldu eta ia antolatu baitzuen lehen edizioa 32 sagardotegiren parte hartzearekin. Historikoki horrelako txapelketak egin izan dira, 1967tik aurrera zenbait txapelketa herriko antolatu baitzituen orduko sagardogileen elkartek, herri desberdinekin elkarlanean, eta sare hori berreskuratzea da asmoa.

2015eko txapelketa "lehen harria" izan zen eta aurten jarri nahi izan da bigarrena, baina finalaz gain, hiru finalurreko ere antolatuta. Herriz herri egiten diren eta sare horretan sartzeko interesa duten txapelketa eta Sagardo Egunekin elkarlanean antolatu du txapelketa herrikoia Gipuzkoako Sagardogileen Elkartek.

Puntuazio sistemari dagokionez, jendea afaltzen hasi orduko hasiko dira mahaira sagardoa ateratzen eta jendeak lote bakoitza puntuatu behar izaten du. Ez da jakiten zein sagardotegitako sagardoa den dastatu beharrekoa eta finalurrekoetan bezala ez da jakiten zein sagardotegitako sagardoa dastatzen den azken sailkapena jakin arte. Bukaeran emango da jakitera zein sagardo diren irabazleak eta zein lote zenbaki zuten. Proiektua Eusko Jaurlaritzarekin eta HAZI fundazioarekin elkarlanean ari da antolatzen Gipuzkoako Sagardogileen Elkartea.

Últimas noticias

Rita Barberá

Lula da Silva

Paralímpicos

Clinton

Te recomendamos

recomendado por  Outbrain



"Destroza" su mano por arte



La foto que Sara Carbonero no se esperaba



Encuentran una pierna mutilada en una sesión de fotos con Miss Perú 2016



13 vergonzosos errores de las películas de superhéroes



La Reina Letizia vuelve a confiar en Carolina Herrera



Ascienden a 23 los heridos en el accidente múltiple de Manzanares, cuatro de ellos en estado muy grave



Patrocinado

10 Súper alimentos para aplanar el vientre y estar siempre saludable



Patrocinado

5 preguntas que tu profesor de inglés no sabrá responder

Babbel



Patrocinado

Seis reglas de oro para encontrar boletos aéreos.

Jetcost

Euskera



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

Últimas noticias »

- 11:01
Vizcaya
EH Bildu apela a la "base social" que apoyó a Ibarretxe y que se sintió "huérfana" porque el PNV "no siguió ese camino"
- 10:19
Vizcaya
La Escuela de Pesca "Gran Ría de Bilbao" del Consorcio de Aguas abre este fin de semana la temporada de otoño
- 09:08
Vizcaya

Hipoteca Fija BBVA desde
1,70% TIN
TAE 2,51%

PLAZO 15 AÑOS

Me interesa

Ofertas Hoteles desde \$29



Encuentra tu Hotel ideal al mejor precio. Ofertas hasta -78%



SOCIALMEDIA

Esto es lo que nunca debes
compartir en las redes sociales
ni en Internet

GALICIA

DESAPARECIDA

Juan Carlos Quer: "A raíz de la
demanda de divorcio cayeron
9 años de secretos", archivadas
todas"

GENTE

Alba Carrillo carga contra Jordi
González y le borra de su
Instagram

europa **press**

[Contacto](#) | [Aviso legal](#) | [Catálogo](#) | [RSS](#)

Portal de actualidad y noticias de la Agencia Europa Press. Publicación digital auditada por OJD.

© 2016 Europa Press. Está expresamente prohibida la redistribución y la redifusión de todo o parte de los contenidos de esta web sin su
previo y expreso consentimiento.

Uso de cookies

Este sitio web utiliza cookies propias y de terceros, puedes ver nuestra [política de cookies](#) -

Aceptar